

GASTEIZKO PRINCIPAL ANTZOKIKO ETXADIAREN BIRGAITZE INTEGRALERAKO AUKERAK IDENTIFIKATZEKO ETA ELKARREKIN SORTZEKO TAILERRA

Posted on 29/01/2025 by Naider

Category: [Albisteak](#)

Tags: [Hiria biziberritzea](#), [Hirigintza jasangarria eta eko-hiria](#), [Zabalgunea Eko-Barruti Ekintzailea](#)

Gasteizko erdigunea biziberritzeko [ZABALGUNEA EKO-BARRUTI EKINTZAILEA](#) proiektuan lanean jarraitzen dugu, aste honetan [Principal Antzokiko etxadiaren birgaitze integralerako aukerak identifikatzeko eta elkarrekin sortzeko](#) lehenengo AUZO TAILERRA eginez.

Tailerra Opera Eraikinean egin da, eta 50 pertsona baino gehiago bertaratu dira, herritarrak eta etxadiko eragile garrantzitsuak ordezkatzuz. Bere parte-hartzeak proiektuaren inguruan gizarte-kohesioa eraikitzen laguntzen du.

Saioan zehar, Haizea Aguirre Puértolas, Edurne Astaburuaga López eta Iván de Torres lankideek, [Paisaje Transversaleko](#) Iñaki Romero Fernández de Larrearekin batera, proiektua aurkeztu dute, eta bertaratutakoei gonbidapena egin diete, etxadiak har ditzakeen proiektuei buruzko ideiak proposatzeko eta beren ikuspuntua adierazteko.

Gasteizko prentsak tailerrari buruzko informazioa eman du, herritarren parte-hartzea bultzatuz, eta bileran bertan ere izan ditugu hedabideak, jorratutakoari bozgorailua emateko. Halaber, eskertzekoa da [Ensanche XIX Elkartearen](#) laguntza.

Parte-hartze prozesua ekintza eta saio berriekin garatuko da datozen hilabeteetan. Egun gutxi bar, ZABALGUNEA EKO-BARRUTI EKINTZAILEA proiektuaren Bulego Teknikoa irekiko da Dato kaleko 38. zenbakian.

ZABALGUNEA EKO-BARRUTI EKINTZAILEA proiektua Gasteizko Udalak gidatzen du, Zabalgunea 21 Zabalgunea Udal Hirigintza Sozietatearen bitartez. NAIDERek, Paisaje Transversalekin batera, etxadiaren birgaitze integralerako aurretiazko azterlanak egiten laguntzen du.

**AUZOKIDEEN TAILERRA: PRINCIPAL ANTZOKIKO ETXADIAN
BERRONERATZE-EKIMENAK BATERA SORTZEN
TALLER VECINAL: COCREANDO INICIATIVAS DE
REGENERACIÓN EN LA MANZANA DEL TEATRO PRINCIPAL**

BERRETSI ZURE ASISTENTZIA
EMAIL BAT BIDALIZ:
CONFIRMA TU ASISTENCIA
ENVIANDO UN EMAIL:
e21z@vitoria-gasteiz.org



URTARRILAK 29, ASTEAZKENA
17:30 - 19:00
OPERA ERAIKINA, 20. BULEGOA
SAN PRUDENTZIO KALEA, 29

MIÉRCOLES, 29 DE ENERO
17:30 - 19:00
EDIFICIO ÓPERA, OFICINA 20
C/ SAN PRUDENCIO, 29

naider

paísaje transaccional



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Gasteizko Udala



Diputación Foral
de Álava



Gobierno Vasco
Basque Government











